Usurbilgo Udala

Esp. zk. 2024LIRZ0005

USURBILGO OIARDO KIROLDEGIAN
KIROL JARDUERA FISIKOA ETA UR SOROSPEN ZERBITZUEN KONTRATUAREN LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA

Erregulazio harmonizatuko kontratua

KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea Usurbilgo jarduera fisiko eta kirol sailak bideratzen dituen kirol jardueren sustapen, sorospen eta koodinazio zein komunikazio zerbitzua ematea da.

KHA kodea: 92620000-3 “kirolarekin erlazionaturiko zerbitzuak”.
KHA kodea: 63725000-7 “sorospen zerbitzuak”.

Kontratuaren xedeak lote bakarra du. Zerbitzuaren izaera kontuan izanda ezin da loteetan banatu, zerbitzu integrala baita.

Ez da onartuko eskaintza alternatiboen proposamena.

Kontratuaren arduraduna Kirol teknikaria izango da.

2. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren indarraldia **3 urtekoa** izango da, formalizazio-dokumentuan ezartzen den egunetik zenbatzen hasita.
Era berean, alderdiek berariaz hala adosten badute, kontratu hau berariaz luzatu ahal izango da bi (2) urtetan, urtez urte, eta kontratuaren iraupena, guztira, ezin izango da bost (5) urtetik gorakoa izan, luzapenak barne.

3. KONTRATUAREN AURREKONTUA

Eskaintzak zerbitzu bakoitzeko **orduko prezioa**ren arabera egingo dira.

Langileen kosteak zehazteko Gipuzkoako Titulartasun Publikoko Kirol instalazioetako Hitzarmen kolektiboa 2023-2027 hartu da erreferentziatzat.

Ondoren zehazten dira zerbitzu bakoitzeko gehienezko prezioak (BEZ-ik gabe):

- Kirol jarduera fisikoko zerbitzuak:	**42,30 euro/orduko**	(%21 BEZ barne 51,18 euro/orduko)
- Ur Sorospen zerbitzuak:	**40,00 euro/orduko**	(%21 BEZ barne 48,40 euro/orduko)
-Koordinazio eta komunikazio zerbitzuak:	**47,00 euro/orduko**	(%21 BEZ barne 56,87euro/orduko)

ESKU6b04c9e4-2d65-4d89-b035-592fdbed7c4e

Kontratuaren iraupenerako aurreikusitako ordu kopuruak honako hauek dira:

- Kirol jardueren zerbituzetan aurreikusitako ordu kopurua: 3.793,50.
- Sorospen zerbitzuetan aurreikusitako ordu kopurua: 4.391,25.
- Koordinazio eta komunikazio zerbitzuetan aurreikusitako ordu kopurua: 240.

Hortaz, urte oso batetarako gutxi gora behera estimaturiko kopuruak dira, BEZ-ik gabe, kirol zerbitzua 160.465,05 euro, sorospen zerbitzua 175.650,00 euro eta kooordinazio eta komunikazio zerbitzua 11.280,00 euro, hau da, denetara 347.395,05 euro (%21eko BEZ barne 420.348,01 euro).

Guztira,hiru urtetarako aurreikuspena, 1.042.185,15 euro dira. % 21eko BEZ-a 218.858,88 euro izanda, 1.261.044,03 euro estimatzen dira.

Luzapen guztiak kontuan hartuz, bost urtetarako kontratuaren balorea BEZ-ik gabe 1.736.975,25 eurotan estimatzen da (horietatik 802.325,25 euro kirol zerbitzua, 878.250 euro sorospen zerbitzua eta 56.400,00 euro koordinazio eta komunikazio zerbitzua). %21 BEZ 364.764,80 euro dira, hortaz guztira, BEZ barne, 2.101.740,05 euro.

Prezio horiek gehienekoak dira eta enpresa lizitatzaileak beherantz hobetu ahal izango ditu. Balio Erantsiaren Zerga (BEZ) sartu beharko dute, eta kontzeptua banatuta azaldu.

Lizitatzaileek egiten dituzten proposamenetan, ulertuko da ondorio guztietarako sartuta daudela kontrata-prezioak ez ezik, kontzeptu ezberdinak zergapetzen dituzten era guztietako zergak ere. Hala ere, Balio Erantsiaren Gaineko Zergak banakatua agertu beharko du eskaintzetan, kontratuari bere arautegi arautzailearen arabera aplikagarri zaizkion tipoa eta zenbatekoa adieraziz.

Erakundea BEZ ordaintzetik salbuetsita egongo balitz, behar bezala justifikatu beharko du eta kopuru hori ez da eskaintzan sartuko.

Bestaldetik, baldin eta, SPKL-ko 204. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, kontratua aldatzeko aukera aurreikusi bada, Kontratuaren Balio Zenbatetsitzat hartuko da kontratuak izan dezakeen gehieneko zenbatekoa, aurreikusitako gorabehera guztiak kontuan hartuta.

Hori horrela Balio Zenbatetsian kopuru hauek gehitu dira:

- Plegu hauetako 18. klausulan aurreikusitako hezitzaileen ordu kopuru estimatuetan %20a bitarteko kontratu aldaketa egiteko aukera.

Hasierako prezioa (3 urte)	Luzapenak (1+1)	Aldaketa doiketa (%20)
1.042.185,15€	694.790,10€	208.437,03€

Kontratu honen guztirako Balio Zenbatetsia 1.945.412,28 euro dira, BEZ gabe.

4. FINANTZAZIOA

ESKU6b04c9e4-2d65-4d89-b035-592fdbed7c4e

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan honako kontularitza partidaren kargura: 4300 227 341 00 04 2024

Bestalde, etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko du aurrekontu gaietan eskumena duen organoak.

5. ORDAINKETA MODUA

Ordainketa hileroko faktura bidez egingo da, behin faktura aurkeztu eta zerbitzuko arduradunak faktura egiaztatu ondoren.

Aurreko hilabetean egindako ordu kopuruari dagokion faktura aurkeztu beharko du esleipendunak, eta indarrean dauden xedapenetan ezarritako izapideak beteta eduki. Urtean 12 faktura egingo dira.

Enpresa kontratistak formatu elektronikoan aurkeztuko ditu fakturak, Gipuzkoako Fakturen Sarrera Puntu Orokorraren bidez (FSPOe) (Fakturazioa, eta faktura elektronikoen sarrera puntu orokorra - Egoitza elektronikoa - Gipuzkoako Foru Aldundia), udal aurrekontua egikaritzeko arauan xedatutakoaren arabera, 25/2013 Legea, abenduaren 27koa, faktura elektronikoa bultzatu eta Sektore Publikoan fakturen kontularitza erregistroa sortzekoa, betez.

Usurbilgo Udalaren DIR3 kodeak:

1. Kontabilitate Bulegoa: L01200739
2. Organo kudeatzailea: L01200739
3. Unitate izapidetzailea: L01200739

6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuak (Espainiako Ekonomiaren Desindexazioaren martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duena) 9. artikuluan eta 2017ko SPKLren 103. artikuluan (sektore publikoko kontratuetan prezioak berrikusteko baldintzak arautzen dituena) ezarritakoaren arabera, kontratu horri ez da aplikagarria aipatutako berrikuspena.

7. BERMEAK

1.- Ez da behin-behineko bermerik eskatzen.

2.- SPKLren 145. artikuluak ezarritakoaren arabera eskaintzarik hoberena aurkezten duen lizitatzaileak %5 behin betiko bermea jarri beharko du Udalaren Kutxan.

Berme hori jartzeko epea 10 egun baliodunekoa izango da, bermea jartzeko jakinarazpena egiten zaion egunetik aurrera kontatuta. Jarritako bermea itzultzeko eskatu ahal izango du

ESKU6b04c9e4-2d65-4d89-b035-592fdbed7c4e

esleipendunak, kontratua egikaritzen amaitutakoan eta, bere kasuan, bermealdia amaitu denean.

3.- Sektore Publikoko Kontratuen Legea onartzen duen, azaroaren 9ko 9/2017 Legearen 108. artikuluan baimendutako edozein modutan (esku-diruz, Zor Publikoko balioez, abalez edo kauzio aseguruz) eta indarrean dagoen legeriak araututako baldintzetan eman ahal izango dira bermeak.

KONTRATAZIOA EGITEKO PROZEDURA

8. ESLEITZEKO PROZEDURA ETA BALORAZIO IRIZPIDEAK

Prozedura irekiaren bidez esleituko da kontratua, eta, era berean, izapidetze arruntari aplikatu beharreko erregelek arautuko dute.

Zenbatekoa dela eta, kontratu hau erregulazio harmonizatuaren mende dago, 2017ko SPKLren 19. eta 20. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Proposamenak baloratzeko eta eskaintzarik onena zein den zehazteko, hainbat esleipen-irizpide hartuko dira kontuan, halako moldez non eskaintzarik onuragarriena kalitate-prezio irizpideen araberako eskaintzarik onena izango den.

a) MODU AUTOMATIKOAN ZENBATETSI DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: gehienez 51 puntu (“C” artxibo elektronikoa) II. Eranskina.

1-Prezioa (41 puntu gehienez)

-Begiraleen orduko gehineko prezioa 42,50 euro izango dira (BEZ salbuetsita)
-Sorosleen orduko gehieneko prezioa 40,00 euro izango dira (BEZ salbuetsita)
-Koordinatzaileraren orduko gehineko prezioa 47,00 euro izango dira (BEZ salbuetsita)

Prezio hori eskaintzen duenak 0 puntu izango ditu.

Puntu gehien prezio merkeena eskaintzen duen proposamenari emango zaizkio eta gainontzeko proposamenen puntuazioa ateratzen da formula honetatik: prezio merkeena duen eskaintzaren eta baloratzen den lizitatzailearen eskaintzaren arteko zatidura bider irizpideari aplikatu dakizkiokeen puntuen kopuru osoa, ateratzen den emaitza.
Hau da,

$$Lp = Et/Le \times 41$$

Non-eta:

Lp: lizitatzailearen puntuazioa
Et: eskaintzarik txikiena
Le: lizitatzailearen eskaintza

ESKU6b04c9e4-2d65-4d89-b035-592fdbed7c4e

2-Koordinazio ordu presentzialak kontratuan zehazten direnetik haratago eskaintzea: 5 puntu, gehienez.

-0-25 ordu: 0 puntu
-26-100 ordu: 1 puntu
-101-200 ordu: 3 puntu
-201 ordu baino gehiago: 5 puntu

3-Berdintasun irizpideak: 5 puntu, gehienez

1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indakeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategineko 22.5 artikuluko a) atalaren baitan, 5 puntu emango zaizkie emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko bereizgarri, ziurtagiri edo etiketa bat izateagatik eta kontratua gauzatu bitartean horri lotutako langileei berdintasun neurri edo betekizun horiek aplikatzeagatik.

Horretarako, baliozkotzat hartuko dira administrazio publikoek berdintasunaren alorrean emandako enpresa-bereizgarriak, hala nola honako hauek:

- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen “Emakumeen eta Gizonen Berdintasu nerako Lankidetza Erakundea” bereizgarria
- Presidentetzaren, Gorteekiko Harremanen eta Berdintasunaren Ministerioaren “Berdinta suna Enpresan” bereizgarria
- Antzekoa edo baliokidea den beste edozein ziurtagiri

b) BALIOESPEN TEKNIKO BATEN BAITAKOAK DIREN IRIZPIDEAK: gehienez 49 puntu (“B”artxibo elektronikoa)

Irizpide bakoitzaren puntuazioa baremo honen arabera esleituko da:

• Eskaintza eskasa: irizpidearen gehienezko puntuazioaren %40 arte
• Eskaintza nahikoa: Irizpidearen gehienezko puntuazioaren %50 arte
• Eskaintza ona: Irizpidearen gehienezko puntuazioaren %75 arte
• Eskaintza oso ona: Irizpidearen gehienezko puntuazioaren %100 arte
azala)

Enpresa lizitatzaileak lan-proiektu bat aurkeztu beharko du , eta gutxienez honako hauek zehaztu beharko ditu:

A. Pertsonak kudeatzeko eta optimizatzeko plana: pertsonak kudeatzeko proiektua. Langileen lan-prozedura, antolaketa, koordinazioa, kontrola eta ebaluazioa. Kontratuaren ezaugarrietara egokituta (15 puntu).

A.1.- Ezarpen- eta gauzatze-prozedura, arduradunaren ingurukoak, antolaketa-prozesuak, barne eta kanpo koordinazioa. Guztira 5 puntu, horrela banatuta:

- Ezarpen- eta gauzatze-prozedura (puntu 1, gehienez)

ESKU6b04c9e4-2d65-4d89-b035-592fdbed7c4e

- Koordinatzailea (puntu 1, gehienez)
- Antolaketa-prozesuak (puntu 1, gehienez)
- Barne-koordinazioa (puntu 1, gehienez)
- Kanpo-koordinazioa (puntu 1, gehienez)

A.2.- Zerbitzuari atxikitako langileen ordezkapenen aurrean jarduteko protokoloak eta kudeaketa plana. Saio guzti-guztien garapena bermatzeko kontratazio berrien aurrean jarduteko moduan hainbat alderdi baloratuko dira, hala nola, plantea daitezkeen ordezkapen motak identifikatzea, zerbitzuaren garapena, baliabide materialak eta horretarako bideratzen diren giza baliabideak. Guztira 5 puntu, horrela banatuta:

- Ordezkapenen protokolo eta kudeaketa plana (3 puntu)
- Kontratazio berriekin lotutakoak (2 puntu).

A.3.- Taldearen motibazioa, klima eta bizikidetza positiboa sustatzeko neurriak (3 puntu).

A.4.- Sektoreko lan hitzarmenak agintzen dituen baldintzetatik haratago, langileen lanerako onurak suposa ditzaketen neurriak (ordutegiak...) (2 puntu).

Atal honek ez du DIN A4 tamainako 8 orri (16 orrialde) baino gehiago izango, eranskinak, irudiak eta idatziak barne. 8 orri baino gehiagoko luzera duten proiektuak orri horretatik aurrera ez dira baloratuko.

B. Zerbitzuaren jarraipena egiteko eta kalitate-kontrolak ezartzea. Enpresak zerbitzu bakoitzean garatu beharreko ekintza zehatzak eta dagozkien adierazleak. (15 puntu)

B.1.- Informazio garrantzitsua biltzeko eta izapidetzeko metodoak, ebaluazioa, jarraipen eta kontrol-metodoak. Kontratua gauzatzen den bitartean, zerbitzu bakoitzaren kudeaketa, baliabideak barne. Usurbilgo Jarduera fisiko eta kirol sailaren eskura jarritako aplikazio informatikoak edo elektronikoak eguneroko kudeaketarako. Ebaluazio-helburuen definizioa eta adierazle kuantitatibo eta kualitatiboen hautaketa, datuak neurtzeko eta biltzeko sistemak, etab. Baloratuko dira. Guztira 10 puntu, horrela banatuta:

- Informazioa kudeatzeko metodoak, ebaluazioa, jarraipen eta kontrola, urteko memoria (4 puntu).
- Zerbitzu bakoitzaren kudeaketa (2 puntu).
- Udalaren eskura jarritako aplikazioak (2 puntu).
- Ebaluaziorako sistema eta metodoak (2 puntu).

B.2. Erabiltzaileen gogobetetasuna neurtzeko bitartekoak. Informazioaren analisia, emaitzen aurkezpena, bitarteko telematikoen erabilera, grafikoak eta dokumentuak etab baloratuko dira. (5 puntu)

Atal honek ez du DIN A4 tamainako 5 orri (10 orrialde) baino gehiago izango, eranskinak, irudiak eta idatziak barne. 5 orri baino gehiagoko luzera duten proiektuak orri horretatik aurrera ez dira

ESKU6b04c9e4-2d65-4d89-b035-592fdbed7c4e

baloratuko.

C. Erabiltzaileak erakartzeko eta fidelizazio proposamenak eta estrategiak. Enpresak garatu beharreko ekintza zehatzak, dagozkien adierazleekin . (10 puntu)

C.1.- Jarduerak sustatzeko eta herritarrei zabaltzeko programa. Erakunde lizitatzaileak proposatzen dituen baliabideak baloratuko dira, Usurbilgo udalari kosturik gabe, baldin eta jarduerak, originaltasuna, aldizkakotasuna, erabilitako formatua, estetika eta bilatzen den inpaktua kontuan hartuta. Guztira 10 puntu, horrela banatuta:

- Komunikazio estrategiak eta metodoak (3 puntu).
- Proposamenen originaltasun eta erakarpena (4 puntu).
- Proposamenen ekarpena Usurbilgo herriari (4 puntu).

Atal honek ez du DIN A4 tamainako 5 orri (10 orrialde) baino gehiago izango, eranskinak, irudiak eta idatziak barne. 5 orri baino gehiagoko luzera duten proiektuak orri horretatik aurrera ez dira baloratuko.

D. Langileei zuzendutako etengabeko prestakuntza, birziklatze-plana, eta euskara plana, kontratuak irauten duen bitartean eta luzapenak barne. (5 puntu, gehienez)

D.1.- Prestakuntza eta birziklatze-plana, urteko ikastaro eta training orduetan neurtuta, eta prestakuntza ekintza zehatzak. Langile teknikoen kualifikaziora, eguneratzera, balio-aniztasunera eta moldagarritasunera bideratutako prestakuntza-ekintzak egokiak diren baloratuko dira, pertsonen gaitasunak zerbitzuak emateko eskakizunetara egokitzen diren ere baloratuko da. Guztira 5 puntu, horrela banatuta:

- Etengabeko prestakuntza:
    - Langile bakoitzaren lan eta funtzioei egokitzen zaien etengabeko-formakuntza eskaintzea. Baloratuko dira: Metodologia berritzaileak, eskaera handiko zerbitzu edo jardueretan formatzea, formakuntzaren jarraikortasuna bermatzea… (gehienez 2,5 puntu).

- Euskara plana:
    - Langileen euskara maila hobetzeko neurriak, horretarako subrogazio zerrendako langileen kasuak aztertuz, hartu litezken neurriak azalduz, kontratuaren iraupen osoan estrategia bat diseinatuz, emaitzak betetzera bideratutako neurriekin. (2,5 puntu).

Atal honek ez du DIN A4 tamainako 3 orri (6 orrialde) baino gehiago izango, eranskinak, irudiak eta idatziak barne. 3 orri baino gehiagoko luzera duten proiektuak orri horretatik aurrera ez dira baloratuko.

E. Kontratua garatzeko baliabide tekniko eta materialak, eta erakunde kontratistak Usurbilgo kirol instalazioetan kontratua gauzatzeko berariaz erabiltzeko konpromisoa. (4 puntu)

E.1.- Proiektuaren xede diren zerbitzuen kudeaketa teknikorako software-tresnak ezartzea,

ESKU6b04c9e4-2d65-4d89-b035-592fdbed7c4e

Usurbilgo udalari kosturik gabe. Guztira 4 puntu, horrela banatuta:

- Baliabide teknikoak: programa informatikoak, softwarea... (2 puntu).
- Baliabide materialak, lizitatzailearen kargura (2 puntu).

Atal honek ez du DIN A4 tamainako 3 orri (6 orrialde) baino gehiago izango, eranskinak, irudiak eta idatziak barne. 3 orri baino gehiagoko luzera duten proiektuak orri horretatik aurrera ez dira baloratuko.

Eskaintzetan Calibri tipografia erabiliko beharko da, eta letraren tamaina 11 pt.koa izango da. **Aipatutako orri kopurua gainditzen bada, orri horretatik aurrera ez da baloratuko.**

Baremazio hau aplikatuko zaio aurreko atal bakoitzari:

- Bikaina: atal bakoitzeko puntuazioaren % 100
- Egokia: atal bakoitzaren puntuazioaren % 75
- Onargarria: atal bakoitzaren puntuazioaren % 50
- Eskasa: atal bakoitzaren puntuazioaren % 25
- Oso eskasa: atal bakoitzaren puntuazioaren % 0

Irizpide horiek honako kontsiderazio hauei dagozkie, eskaintzen konparazioaren arabera:

- Bikaina: proposamenak eskatutako gutxienekoak modu bikainean erantzuten ditu.
- Egokia: proposamenak eskatutako gutxienekoak modu onean erantzuten ditu, eta zerbitzua hobetzeko ekimenak/proposamenak ditu.
- Onargarria: proposamenak eskatutako gutxienekoak modu onargarrian erantzuten ditu.
- Eskasa: proposamenak era eskasean betetzen ditu eskatutako gutxienekoak.
- Oso eskasa: proposamenak ez ditu gutxieneko baldintza teknikoak betetzen edo ez da behar besteko justifikaziorik aurkeztu.

SPKLren 146.3 artikuluan aurreikusitakoaren babesean, gutun-azal honetan **25 puntu** lortu behar dira gutxienez hautaketa-prozesuan aurrera jarraitzeko. Puntu kopuru hori lortzen ez duten lizitatzaileak prozesutik kanpo gelditutko dira. Lizitatzaileetako batek ere ez badu gutxieneko atalase hori lortzen, kontratazio-organoak bi aukera izango ditu: lehiaketa esleitu gabe uztea edo puntuaziorik handiena lortu duten hiru eskaintzak onartzea.

Kontratua esleituz gero, eskaintzan adierazitako konpromiso guztiak (hobekuntzen atalean, txosten teknikoan zein eskaintzaren agiri orotan) kontratuaren egikaritze baldintza berezi bihurtuko dira eta, ondorioz, horien urraketak kontratuan adierazitako zehapenak ezartzeko edo, hala suertatuz gero, kontratua suntsitzeko zio izango dira.

OHARRA: Adi! B artxibo honetan ezin da C artxiboan jaso behar den informaziorik aipatu

9. KONTRATATZEKO AHALMENA ETA KAUDIMENA

ESKU6b04c9e4-2d65-4d89-b035-592fdbed7c4e

Kontratatzeko prozedura honetan parte hartu ahalko dute, gaitasun juridikoa nahiz jarduteko osoa izanik, beren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen duten pertsona natural edo juridikoek, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 71. artikuluan kontratatzeko ezartzen diren debekurik ez dutenak.

Halaber, beren kabuz edo baimendutako pertsona batek ordeztuta aurkeztu ahalko dira, horretarako emandako nahiko ahala duena. Pertsona juridiko bat ordeztuz hartako kideren bat aurkezten denean, pertsona horrek dokumentuekin justifikatu beharko du horretarako gaitasuna duela. Kasu batean zein bestean, ordezkariari kontratatzeko ezintasun kausa horiek eragiten die.

Gainera, pertsona juridikoek kontratu honetako xedearekin harreman zuzena duten jarduerak burutzea izan behar dute helburutzat, eta kontratua behar bezala egikaritzeko behar adina elementu pertsonal zein materialekin hornitutako antolaketa bat izan beharko dute.

Kontratatzeko ahalmena eta kaudimena ***ENPRESA ESLEIPENDUNAK SOILIK*** *egiaztatuko du, dokumentu hauek aurkeztuta*:

9.1.- Enpresariaren eta, hala badagokio, haren ordezkariaren izaera juridikoa egiaztatzeko dokumentuak.

Izaera egiaztatzeko honakoak aurkeztu beharko dira:

- Nortasun Agiri Nazionala pertsona lizitatzaileak bere izenean jarduten baldin badu.

- Beste pertsona edo erakunde bat ordezkatuz jardunez gero, Nortasun Agiri Nazionala eta ahalordetze-eskritura aurkeztu beharko dira. Dokumentazioa kalifikatzeko egintzan, botereaskiespenera joko da, ofizioz.

- Lizitatzailea pertsona juridikoa denean, eraketa- edo aldaketa-eskritura, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta, eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, inskripzioa aplikagarri den merkataritzako legeriaren arabera eskagarria denean. Hori eskagarria ez bada, jarduteko gaitasuna eraketaren eskritura edo agiriaren, estatuen edo fundazio aktaren bitartez egiaztatuko da, horretan jasota egongo baitira pertsona juridikoaren jarduera erregulatzen duten arauak. Horiek, hala dagokionean, dagokien Erregistro ofizialean inskribatuta egongo dira. Europar Batasuneko Estatu kideetako enpresari ez espainiarren kasuan, erregistro profesional batean edo merkataritzako erregistro batean inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute eskakizun hori dagokion Estatuko legerian eskatzen denean.

- Enpresari ugari lizitaziora aurkezten baldin badira Enpresen Aldi Baterako Elkarketa eratuz, horietako bakoitzak bere ahalmena eta kaudimena egiaztatu beharko du aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Era berean, ABEE bat modu formalean eratzeko konpromisoa -9- helarazi beharko dute, esleipendun suertatuz gero. Halaber, proposamenean ABEE elkarketako kide bakoitzak beteko duen xedearen zatia adieraziko dute, kaudimenarekin lotuta bakoitzaren betekizunak zehaztu eta egiaztatze aldera.

9.2- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 71. artikuluan kontratatzeko

ESKU6b04c9e4-2d65-4d89-b035-592fdbed7c4e

zerrendatzen diren debekurik ez izatearen berariazko adierazpen arduratsua.

9.3.- Indarreko xedapenek agindutako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzearen berariazko adierazpen arduratsua.

9.4.- Atzerriko enpresek edozein ordenatako Espainiako epaitegi edo auzitegietako jurisdikzioaren mende jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zerikusi zuzena edo zeharkakoa duten gorabehera guztietarako, eta, hala badagokio, enpresa lizitatzaileari egokitu dakiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo diotela ere bai.

9.5.- Bermea: ezarri izanaren ziurtagiria.

9.6.- Asegurua: Aktibitatearen baitan edozein motatako istripu edo gertakari kaltekorri aurre egiteko, esleipendunak kirol eta sorospen zerbitzua bere hedadura osoan estaliko duen Erantzukizun Zibileko Asegurua itundu beharko du entitate aseguratzaileren batekin, gutxienez 1.000.000 euroko estaldura duena (kalte pertsonaleko estaldura gutxienez 600.000 euro). Aipatu erantzukizun zibileko aseguruak, erabiltzaileen gaineko kalteez gain, ekintza bat antolatzearen ondorioz gerta litekeen beste edonolako kalte, narriadura eta galera kalte-ordainez estaltzeko adinakoa izan beharko du.

9.7.- **Kaudimena:**

- **Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa:**

Kirol zerbitzuen eremuan negozioen urteko bolumena, azkeneko hiru urteetako bolumen handieneko urteari dagokiona, gutxienez 350.000 €.

- **Kaudimen teknikoa:**

1. Azken hiru urteetan egindako lan nagusien zerrenda, zenbatekoa, datak eta horiek norentzako egin diren, publiko edo pribatuarentzako, aipatuz.

Gutxieneko baldintza izango da egikaritze handieneko urtean pilatutako urteko zenbatekoa 350.000 euroren berdina edo handiagoa izatea kontratuaren xede diren zerbitzuen izaera bere edo antzekoetan. Enpresariak gauzatutako zerbitzuen eta kontratuaren xede diren zerbitzuen arteko loturarako irispidetzat hartuko da sailkapen azpitalde berekoak izatea, kontratua kokatuta balego arautegian ezartzen direnetako batean, eta hala ez balitz, CPV sailkapenaren barnean dagozkien kodeetan lehenengo digituen artean dagoen berdintasuna.

Egindako zerbitzuak edo lanak egiaztatuko dira organo eskudunak emandako ziurtagirien bitartez, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea subjektu pribatua denean, honek egindako ziurtagiri baten bitartez edo, ziurtagiri horren faltan, enpresariak eginiko aitorpenaren bitartez.

2. Langileen baldintzak:
- Langile guztiek:

ESKU6b04c9e4-2d65-4d89-b035-592fdbed7c4e

- Sexu Delitugileen Erregistro Zentraletik ziurtagiri negatiboa izatea.

10. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

10.1 ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

Kontratazio honetako espedientea, hari gaineratzen zaion dokumentazio teknikoa, pleguak eta dokumentazio osagarria Usurbilgo Udalaren Kontratatzailearen Profilaren bidez eskuratu ahalko dira, lizitazio honen iragarkia aipatu Kontratatzailearen Profilean argitaratuta agertzen den unetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea amaitu bitartean.
Harremanetarako hona jo:

Joxe Martin Sagardia plaza, z/g – 20170 Usurbil
Tel. 943 371951
Helbide elektronikoa: kontratazioa@usurbil.eus
Kontratatzailearen Profila: www.usurbil.eus

Proposamenak bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztuko dira esklusiboki, lizitazio iragarkia Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegora bidali eta hurrengo egunetik kontatzen hasita HOGEITA HAMAIKA (31) EGUN NATURALEKO epearen barnean, 14:00ak arte. Iragarkia noiz bidali den zehaztuko da udaleko Kontratatzaile Profilean.

Proposamenak isil-gordekoak izango dira eta izaera hori bermatzeko neurriak hartuko dira proposamenak irekitzen diren unera arte.

Proposamenak modu elektronikoan aurkezteko beharrezkoak diren informazio eta zehaztapen teknikoak, dataren zifratzea eta baliozkotzea barne, Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman (www.contratacion.euskadi.eus) daude.

10.2. AURKEZPEN ELEKTRONIKOA.

Lizitazio elektronikoaren erabiltzaileentzako Arreta Zentroa: 945016298 (7:45-20:00) bitartean.
Interneteko helbidea: www.euskadi.eus
Helbide elektronikoa: laguntzakpe@euskadi.eus

10.3 PROPOSAMENEN EDUKIA

Enpresa lizitatzaileek HIRU ARTXIBO ELEKTRONIKO (“A”, “B” ETA “C”) aurkeztu beharko dituzte.

1)“A” ARTXIBO ELEKTRONIKOA “KONTRATATZEKO AHALMENA ETA KAUDIMENA” izendatuko da eta dokumentu hauek jasoko ditu:

Agiri hauek izango ditu fitxategiak:

a. Helbide elektronikoa

ESKU6b04c9e4-2d65-4d89-b035-592fdbed7c4e

Posta elektronikoko helbide gaitu bat izendatu behar da, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera; helbide horretara igorriko dira kontratazio-espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak.

b. Kontrataziorako Europar Dokumentu Bakarra (DEUC). DEUCen formulario normalizatua era elektronikoan betetzeko eskuragarri dago kontratatzailearen profilaren lizitazioaren iragarkian.

Dena den, prozedura ondo burutzen dela bermatzeko, kontratazio-mahaiak edo kontratazio-organoak lizitatzaileei eska diezaieke dokumentazioa aurkez dezaten kontratuaren adjudikazioduna izateko klausula-agiri honetan eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, kontratua adjudikatu aurreko edozein unetan.

c. Aldi baterako enpresa-elkarte gisa (ABEE) aurkezten diren enpresaburuen kasuan, hura osatzen duten partaideetako bakoitzak aurkeztu beharko du bere erantzukizunpeko adierazpena. Halaber, konpromisoa aurkeztu beharko dute adjudikazioa lortuz gero aldi baterako enpresa-elkartea formalki eratzeko, eta zehaztu beharko dute partaide bakoitzaren izena eta zer egoera eta zer partaidetza izango duen aldi baterako enpresa-elkartean.

d. Baldin eta, SPKLren 75. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzen bada, horietako bakoitzak ere aurkeztu beharko du erantzukizunpeko adierazpena.

2) “B” ARTXIBO ELEKTRONIKOA “BALIOESPEN TEKNIKO BATEN BAITAKOAK” izendatuko da eta dokumentu hauek jasoko ditu: plegu admnistratiboetako 8.b atalean eta plegu teknikoetan zehaztutako baldintzak bete beharko ditu proiektuak.

Artxibo honetan ez da sartu behar, inola ere ez, modu automatikoan zenbatu daitezkeen esleipen-irizpideei dagokion ezein datu, “C” artxiboan barneratu beharko direlarik horiek.

3) “C” ARTXIBO ELEKTRONIKOA “MODU AUTOMATIKOAN ZENBATETSI DAITEZKEEN IRIZPIDEEN ARABERAKOAK” izendatuko da eta, hauek jasoko ditu:

Plegu honetako II. eranskin modura gaineratzen den ereduaren araberakoa.

11. ALDAGAI EDO ALTERNATIBAK

Ez dira onartzen.

12. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia horrela osatuko da:

1. Iratxe Begiristain Otegi, zinegotzia, Presidentea.
2. Xabin Juaristi Arrieta, Udal idazkaria, batzordekidea.
3. Gorka Lizarraga Erro, Udal kontu-hartzailea, batzordekidea.
4. Xabat Beloki Segurola, kirol zinegotzia, batzordekidea.

ESKU6b04c9e4-2d65-4d89-b035-592fdbed7c4e

5. Libana Taboada Moran, kirol teknikaria, batzordekidea.
6. Maialen Urzelai Azpiazu, kontratazio teknikaria, mahaiko Idazkaria.

Halaber, Mahaiak bertaratzea eskatutako udal teknikari arduradun guztiak bertaratu ahalko dira, aholkularitza lanak betetzeko.

13. DOKUMENTAZIOA KALIFIKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan, honela jokatuko da:

1)“A” ARTXIBOA IREKITZEA:

“A” artxibo elektronikoa aztertuko da, aurretiko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Beharrezkoa izanez gero, Kontratazio Mahaiak gehienez ere hiru egun naturaleko epea emango du lizitatzaileak akatsak zuzen ditzan.

2) “B” ARTXIBOA IREKITZEA:

“A” artxiboko dokumentazioa baloratu ondoren, “B” artxiboa ireki eta aztertuko da.

Kontratatzailearen Profilean adierazitako egunean eta orduan, eta streaming bidez transmitituko da publikoarentzat plataformaren bidez.

Streaming bidezko lizitaziorako esteka:

- Euskaraz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_eu.html
- Gaztelaniaz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_es.html

“B”artxiboa ireki ondoren, Kontratazio Mahaiak dokumentazioa helaraziko dio hura baloratzeko ardura duen teknikariari, eta teknikari horrek balorazio txostena egin beharko du.

3) “C” ARTXIBOA IREKITZEA:

“B” artxiboko dokumentazioa baloratu ondoren, “C” artxiboa ireki eta aztertuko da.

Kontratatzailearen Profilean adierazitako egunean eta orduan, eta streaming bidez transmitituko da publikoarentzat plataformaren bidez.

Streaming bidezko lizitaziorako esteka:

- Euskaraz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_eu.html
- Gaztelaniaz: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_usurbil_es.html

14. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

ESKU6b04c9e4-2d65-4d89-b035-592fdbed7c4e

Kontratazio Mahaiak, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 150.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, aurkeztutako proposamenak kontratazio-organora bideratuko ditu.

Kontratazio Organoak eskaintzak sailkatuko ditu eta eskaintza onena aurkeztu duen enpresa lizitatzailea deituko du, eskakizuna jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hamar egun balioduneko epean, eskatutako dokumentazioa aurkeztu dezan. Dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun balioduneko epean, SPKLren 150.3 artikuluak xedatutakoari jarraituz, esleipena egingo da.

KONTRATUA EGIKARITZEA

15. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratua egikaritzeaz arduratuko den Udal teknikaria, SPKL legeko 62. artikuluan aurreikusten diren funtzioekin, kirol saileko burua izango da.

16. KONTRATUA EGIKARITZEA

Zerbitzuak egiterakoan, agiri honetan dauden baldintzak bete beharko dira, bai eta espedienteari erantsitako xehetasun teknikoak ere, halakorik egonez gero. Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

Esleipendunak, ordainketa osagarri bat jasotzeko eskubiderik gabe, kontratua egoki garatu eta bete dadin beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak eman beharko ditu, hala nola, laneko bileratara edo informazio-bileratara joan.

Kontratuaren jabeak bere gain hartzen ditu kontratua burutzeak dakartzan arriskuak. Kontratistak, zerbitzua antolatzerakoan eta ematerakoan, zehazki bete beharko ditu orri honetan jasotako baldintzak eta agindu teknikoen orriko espezifikazioak. Gainera, Udalak zuzenduko, ikuskatuko eta kontrolatuko du zerbitzua, eta horrek idatziz zein ahoz gauzatuko ditu eskumen horiek.

Kontratista izango da egindako lanen eta emandako zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule. Kontratista izango da erantzule, baita ere, kontratua betetzean ez-egiterik, akatsik, egokia ez den metodorik edo ondorio okerrik sortzen bada, eta horrek ondoriorik eragiten badie Administrazioari edo hirugarrenei.

Kontratistak beharrezko ekipamendu eta bitartekariak ekarri beharko ditu lanak ondo gauzatu eta kontratua aipatutako epean bukatzeko. Horrez gain, beharrezko langileak kontratatu beharko ditu.

Kontratuaren jabeak arduradun bat izendatuko du, kontratuaren jabearen eta Udaleko langileen

ESKU6b04c9e4-2d65-4d89-b035-592fdbed7c4e

arteko harremanak zuzenean koordinatzeko. Udaleko Zerbitzu Teknikoen eta kontratuaren jabearen artean egin behar diren bileren kopuru eta maiztasuna eta erabili beharreko informazioa Udalak zehaztuko du. Era berean, Udalak informazioa bildu eta esleipenduna egiten ari den lana gainbegiratu ahal izango du.

Kontratua betetzeko izaera pertsonaleko datuak erabili behar baldin baditu, izaera pertsonaleko datuak babesteko indarrean dagoen araubidea beteko du.

17. KONTRATUA EGIKARITZEN DEN BITARTEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEEN ONDORIOZKO KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA.

Kontratatutako enpresa izango da kontratua egikaritzeko egin beharreko eragiketen ondorioz eragiten diren kalte eta galeren erantzule, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 196. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

18. KONTRATUA ALDATZEA

Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du, interes publikoko arrazoiengatik, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 203. eta ondorengo artikuluetan aurreikusitako kasuetan eta eran.

Derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 206 artikuluan ezarritakoaren arabera adosten diren kontratuaren aldaketak.

Agiri honetan aurreikusi gabeko aldaketei dagokienez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 205. artikuluan xedatutakoa beteko da.

Plegu honetan aurreikusitako aldaketei dagokienez, kontratazio-organoak, behin kontratua burutu eta interes orokorreko arrazoiengatik, adostu dezake kontratuan aldaketak egitea; horretarako kontuan hartuko ditu aldaketen prozedura eta inguruabarrak, ondoren adierazten diren gehieneko irismen, muga eta gehinezko portzentajeekin. Hauexek dira muga horiek:

a) Behar diren zerbitzu orduen kopurua ALDATZEA, benetako eskariaren arabera.

Aldaketak, bakarkakoak edo pilatutakoak, ezingo dira izan kontratuaren prezioaren % 20 baino handiagoak, bai gorantz bai beherantz. Aldaketak tramitatuko dira prozedura kontrajarriaren bidez, erreferentzia hartuta kontratistak ere eskaintzan sartutako zerbitzuen prezioak, denborak eta maiztasunak. Aldaketa horiek derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.

Kontratuaren aldaketak 153. artikuluan ezarritakoari jarraituz formalizatuko dira eta Sektore Publikoaren Legearen 207 eta 63 artikuluei jarraituz argitaratuak izan beharko dute.

19. PRESTAZIOA HARTZEA ETA BERMEALDIA

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak aurrikusten dituen ondorioetarako, hilabeteko bermealdia

ESKU6b04c9e4-2d65-4d89-b035-592fdbed7c4e

ezartzen da. Berme epean kontratistaren kargu joango lirateke lanetan eta egindako prestazio guztietan ager daitezkeen akats eta ikusiezinezko akats guztiak.

20. EZ BETETZEEN ONDORIOZ KONTRATISTARI EZARRITAKO ZIGORRAK

20.1. Kontratua egikaritzeko epeak ez betetzea

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, berandutzen bada kontratua egikaritzeko epean, administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea (eta adjudikaziodunak bermea galdu), edo honako zigor hau ezartzea: zerbitzua behar bezala ematen berandutzen den eguneko 0,60 euro kontratuaren prezioko 1.000 euroko (BEZa aparte).

Berandutzeagatik ezartzen diren zigorren zenbatekoa kontratuaren prezioaren %5en multiplo batera heltzen den bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua suntsiarazteko, edo, bestela, kontratua egikaritzen jarrai dadin agintzeko, zigor gehiago ezarrita.

20.2. Prestazioen egikaritze partziala ez betetzea

Kontratistak ez badu betetzen kontratuan zehaztutako prestazioen egikaritze partziala, eta horren errua berari egozten ahal bazaio, administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea, edo, bestela, kontratuaren prezio osoaren %10en baliokidea den zigorra ezartzea.

20.3. Kontratuaren baldintza bereziak ez betetzea

Baldin eta enpresa kontratatuak, berari egotzi dakizkion kausengatik, ez baditu kontratuaren baldintza bereziak betetzen, administrazioak aukera egin ahal izango du era berean kontratua amaitzeko, eta bermea galduko du, edo eguneroko penalitateak ezartzeko, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 1 euroko proportzioan, eta horiekin batera kalte-ordaina, sortutako kalte eta galerengatik.

20.4 Arau-hauste eta zigorrak

Arau-hausteak honela sailkatzen dira: arinak, larriak eta oso larriak.

- Arau-hauste arinak zigortuko dira 600 euro arteko isunez.
- Arau-hauste larriak zigortuko dira 601 eta 1.500 euro arteko isunez.
- Arau-hauste oso larriak zigortuko dira 1.501 eta 6.000 euro arteko isunez.

Arau-haustea egin izana egiaztatuta, kontratistari entzun eta gero, kontratazio organoak jarriko du dagokion zigorra, klausula honetan ezarritakoaren arabera eta kontuan izanik egin daitekeela dagokion deskontua fakturan.

Santzioez gain, kalte-ordain bat ordaindu behar dio kontratistak udalari, egin ez den zerbitzuaren balorazioari, aplikatu ez diren bitartekoei, e.a.i dagokien zenbatekoaren truke.

Ezarritako isunen kopurua hileroko zerbitzua ordaintzerakoan murriztuko da ziurtagirietatik, edo

ESKU6b04c9e4-2d65-4d89-b035-592fdbed7c4e

jarritako bermetik.

20.4.1 Hutsegite arinak izango dira:

a.- Atzeratzen bada bere eginbeharrak bete behar dituenean.

b.- Desobedientzia arinak izaten baditu udalak emandako jarraibideetan.

c.- Akats arinak egitea zerbitzua ematean, establezimenduaren apainketan, lokalak eta tresnak garbi izatean eta instalazioak eta altzariak erabiltzean.

d.- Erabiltzaileei zor zaien errespeturik eta arretarik ez izatea.

e.- Atzeratzea edo enpresari egotzi dakiokeen akatsa egitea eskatutako datuak eta azterlanak ematean.

f.- Zerbitzuan aldaketen komunikazio falta, hainbat arrazoirengatik gertatu daitezkeenak.

g.- Atzeratuta ibiltzea udalak emandako aginduak betetzeko, betiere berandu ibiltze hori ez bada 24 ordu gorakoa; hala bada, hutsegitea kontsideratuko da hutsegite astun.

h.- Erabiltzaileekin gizalegez ez jokatzea

20.4.2 Hutsegite larriak izango dira:

a.- Behin eta berriro egitea hutsegite arinak.

b.- Enpresak zabarkeriaz jokatzea bere langileen portaera kontrolatzeko, bai erabiltzaileei dagokionez, bai udal araudia zorrotz betetzean, eta bereziki kontratu hau erregulatzen dutenak, hala nola akatsak egitea tarifa kobratzean, eta abar.

c.- Esleipendunaren jardunak eraikinaren balio galera ekartzen duenean.

d.- Emandako zerbitzu publikoa behar bezala erabiltzen ez denean.

e.- Kontratu honek xedetzat ez duen jarduera bat egitea zerbitzuan.

f.- Jartzen den ordutegia ez betetzea.

g.- Esleipendunaren oinarrizko betebeharren arau hauste astuna.

h.- Kontratuan aipatzen diren lanak geldiarazi edo etetea hiru egunean, ezinbesteko arrazoirik ez badago.

i.- Bere kasuan, eta horrela badagokio, onartutakoak baino prezio handiagoak jasotzea.

ESKU6b04c9e4-2d65-4d89-b035-592fdbed7c4e

j.- Esleipendunaren ez betetzea gainerako edozein baldintza, aipatuak agirietan edo bere eskaintzan, eta bereziki ez betetzea Esleipendunaren obligazioak, tipifikatu gabe hutsegite arin edo oso astun agiri honetan.

20.4.3 Hutsegite oso larriak izango dira:

a.- Ez hastea kontratatutako zerbitzuak ematen agiri honetan ezarritako epean, ezinbesteko kausen ondorioz ez bada.

b.- Geldiaraztea edo ez ematea kontratatutako zerbitzuak hiru egunetik gora, ezinbesteko kausen ondorioz ez bada.

c.- Zerbitzua ematea eraginez pertsonen segurtasunari, haientzat arrisku larria eta zuzenekoa izan daiteke eta.

d.- Uko egitea edo trabak jartzea ikuskatze, zerbitzuen jarduerari, legez edo arauz dituzten funtzioak betetzea galarazten dutenak.

e.- Zerbitzu publikoa egitea titulazio barik edo lanbide trebakuntza barik.

f.- Zerbitzua bertan behera uztea edo gelditzea, emakida epea bukatu barik egonda, Administrazioaren baimen barik.

g.- Zerbitzuari atxikitako materialak jartzea kontratatutako zerbitzu publikorako ez diren helburuetarako, edozein modalitate edo titulupean, udalaren baimen barik.

h.- Hutsegite larriak behin eta berriro egitea.

20.5. Langileak subrogatzeko betebeharrak ez betetzea

Kontratistak ez baditu betetzen langileak subrogatzeko betebeharrak, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu prezioaren % 50.

21. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak ezin izango du kirol eta sorospen zerbitzuei dagokion prestazioaren gauzatze partziala azpikontratatu, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 215.2.e) artikuluan oinarrituz.

Gainontzerakoan, kontratistak prestazioaren gauzatze partziala azpikontratatu dezake hirugarren batzuekin. Nolanahi ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 215. eta 216. artikuluetan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu azpikontratazio horrek.

ESKU6b04c9e4-2d65-4d89-b035-592fdbed7c4e

22. KONTRATUA LAGATZEA

Kontratua lagatzeko aukera egongo da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 214. artikuluko muga eta betekizunekin.

23. KONTRATUA ETETEKO ARRAZOIAK

Kontratua eteteko arrazoiak dira SPKL-ko 211. eta 313. artikuluetan ezartzen direnak.

24. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Kontratazio-organoak, 2017ko SPKLren 190. eta 191. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, honako prerrogatiba hauek ditu:

a) Kontratua interpretatzea.
b) Hitzarmena betetzean sor daitezkeen zalantzak argitzea.
c) Kontratua interes publikoko arrazoiengatik aldatzea.
d) Kontratua suntsiaraztea erabakitzea eta horren ondorioak zehaztea.

25. HIZKUNTZAREKIN LOTUTAKO BETEKIZUNAK

Hizkuntza-gaitasunari buruz:

Usurbilgo Udalarekin eta hirugarrenekin harremana izango duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek Usurbilgo Udalak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila egiaztatu beharko dute jardueran parte hartuko duten hezitzaile, irakasle edo koordinatzaileak.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:
a) Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,
b) Usurbilgo Udalak erabakitako froga egitea.

Zerbitzu hizkuntza erabiltzaile eta herritarrekin

Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriak kontuan hartuta, zerbitzu hizkuntza euskara izango da.

ESKU6b04c9e4-2d65-4d89-b035-592fdbed7c4e

Usurbilgo Udalak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, zerbitzuaren erabiltzaile eta gainerako herritarrekin ahozko harremana (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan, bozgorailutik, bileretan…) euskaraz egingo da.

Modu berean, era guztietako jakinarazpen eta komunikazio idatziak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak…) euskaraz egingo dira eta, behar izanez gero, euskaraz eta gaztelaniaz, euskarazkoari lehentasuna emanez.

Hala ere, kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira.

Hizkuntza paisaia

Errotuluak, oharrak, seinaleak, kartelak eta gisa bereko komunikazio orokorrak euskaraz egingo dira.

Harremanak administrazioarekin

Enpresa adjudikazio-hartzaileak Usurbilgo Udalaren hizkuntz araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; eta beraz, enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz izango dira.

Jarraipena

Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren jarraipena: Usurbilgo Udaleko Hezkuntza sailak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena.

26. HIZKUNTZAREKIN LOTUTAKO BALDINTZAK ZEIN NEURRITAN BETE DIREN JARRAITZEA.

Kontratua sustatzen duen administrazio-unitatea izango da bertan ezarritako hizkuntzabaldintzak betetzen direla ziurtatzeko jarraipena egiteaz arduratuko dena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen antzera eta antzeko epeekin, Euskara Zerbitzuari horren berri emanez. Azken horrek onarpena eman edo neurri zuzentzaileak proposatuko ditu.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 62. eta 210. artikuluekin bat etorriz:

- Kontratuaren arduradunak kontratua nola betetzen den ikuskatuko du, hizkuntzabaldintzak behar bezala betetzen diren ziurtatzeko jarraipena egingo du, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu.

- Ikuskaritza kontratu bukaeran ez ezik, modu jarraian ere egingo du kontratuaren arduradunak, jarraipen espezifikorako euskarriak erabilita, sor daitezkeen hutsegiteak zuzentzekoak.

27. EGIKARITZEAREN BALDINTZA BEREZIAK.

Kontratua egikaritzeko jarraian adierazten diren baldintza bereziak ezartzen dira. Horiek urratzen

ESKU6b04c9e4-2d65-4d89-b035-592fdbed7c4e

baldin badira zehapenak ipiniko dira, kontratuzko funtsezko betebehar izaera ematea berariaz zehazten diren horietan izan ezik, horiek urratzea kontratua eteteko arrazoi izango delarik.

27.1. Egikaritzearen baldintza bereziak lan, gizarte segurantza eta laneko segurtasun eta osasun arlotan.

Enpresa kontratista lan arloari, Gizarte Segurantzari eta laneko segurtasun eta higieneari dagokienez indarrean diren legezko xedapenak betetzera derrigortuta dago kontratuaren xede diren zerbitzuetan erabiltzen dituen langileekiko, Administrazioa ez-betetze horren ondoriozko erantzukizunetik salbuetsia geratuko delarik.

Gainera, enpresa esleipendunak, kontratua sinatu aurretik, kontratuaren xede den jarduera burutzen duten langileei aplikagarri izango zaien hitzarmen kolektiboa adierazi beharko du. Kasu honetan: Gipuzkoako Titulartasun Publikoko Kirol instalazioetako Hitzarmen kolektiboa 2023-2027.

Kontratua gauzatzen den bitartean, kontratatutako enpresak ordaindu beharko du langilearen kategoria profesionalari aplikagarri zaion hitzarmen kolektiboan jasotako soldata, eta soldata hori ezingo da inola ere izan hitzarmenekoa baino txikiagoa.

Kontratistak ezingo du aldaketarik egin zerbitzuari atxikitako langile teknikoei dagokienez, aldez aurretik Udalaren baimenik ez baldin badu. Langile teknikoak ordezteko pertsonek, gutxienez, eskaintzan emandakoen baliokide diren ezaugarri profesionalak bete beharko dituzte.

27.2. Lan-kontratuetan subrogatzeko baldintzei buruzko informazioa.
Usurbilgo Udalak ez du inongo lan-harremanik izango zerbitzuan lanean ari diren langileekiko.

Gainera, esleipendunak bere gain hartuko ditu zerbitzu horiek gaur egun egiten dituzten langileak, beti ere aplikagarri zaien Lan Hitzarmenaren arabera, eta subrogaturik geratuko da aurreko adjudikaziodunak zeuzkan laneko eskubideetan eta obligazioetan, aplikagarri den Lan Hitzarmenak ezarritako baldintzetan. Atxikitako pertsonen datuak I. ERANSKIN-ean datoz jasota, langile hauei aplikatzen zaien Lan Hitzarmena eta lan baldintza ekonomikoen inguruko informazioa ere jasoz.

Enpresa kontratistari, eta berari bakarrik, dagokio pertsonala hautatzea kontratua gauzatzeko adskribitutako lan taldea osatzeko, klausulen agiri honetan exijitutako titulazio eta ukan beharrekin. Edonola ere, entitate kontratatzaileak baldintza horiek betetzen dituela egiaztatzeko ahalmena izango du.

Enpresa kontratugilea ahaleginduko da bere lan taldean egonkortasunari eusten eta taldearen osaketan aldaketarik badago haiek puntualak eta justifikatutako arrazoiengatik izaten, zerbitzuaren funtzionamendu egokiak ez dezan aldaketarik pairatu. Edozein kasutan, beti entitate kontratatzaileari horren berri eman beharko dio.

Enpresa kontratistak bere gain hartzen du betebehar bezala, enpresari orori dagokion zuzendaritza ahalmena modu erreal, eraginkor eta etengabean baliatzeko, kontratuaren exekuzioaz arduratzen den lan taldeko pertsonalaren gainean. Bereziki, honako hauek hartuko

ESKU6b04c9e4-2d65-4d89-b035-592fdbed7c4e

ditu bere gain: soldaten negoziaketa eta ordainketa, baimenak, lizentziak eta oporrak ematea, ordezkapenak langileen baja edo ez egoteengatik, Gizarte Segurantzako lege betebeharrak, kotizazio eta prestazio ordainketak barne, hala dagokionean, lan arriskuen prebentzioaren alorreko legezko betebeharrak, diziplina ahalaz baliatzea eta, oro har, enplegatuaren eta enplegatzailearen arteko kontratu loturak dakartzan eskubide eta betebehar guztiak.

27.3. Egikaritzearen baldintza bereziak hizkuntzari dagokionez.

Errotuluak, oharrak, seinaleztapenak eta ipintzen diren gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira, euskaraz idatzitako azalpen mezu batek lagunduta. Piktograma bat erabiliz egin ezin baldin bada, euskaraz egingo dira mezu ezagun eta ulergarriak direnean. Aurreko bi kasuak ezinezkoak baldin badira, elebitan egingo da, euskarari lehentasuna emanez, aldez aurretik administrazioak hala baimenduta.

28. KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

28.1 Konfidentzialtasuna

Erakunde esleipenduna behartuta dago kontratua gauzatzeko ematen zaion dokumentazio guztia gordailuan zaintzera. Era berean, ezin izango du beste helburu batzuetarako erabili, eta gertatzen den edozein erabilera oker, galera, narriaduraren edo antzeko egoeraren erantzule bakarra izango da. Horrelako kasurik gertatu ezkero, Usurbilgo Udalari kalte-ordainak eman beharko dizkio kalte-galerengatik, betiere, zerbitzu teknikoek balorazioaren arabera. Buruturiko lana ez da jasoko Usurbilgo Udalak kontratistari emandako dokumentazioarekin batera ez bada. Ildo beretik, sortu berriko dokumentazioa zainduko du ere, hala dagokion kasuetan. Halaber, Usurbilgo Udalak emandako informazio guztia isilpekotzat joko du erakunde esleipendunak.

SPKLren 133.2 artikuluaren arabera, kontratistak isilpean gorde beharko du baldintza agirietan, kontratuan aipatutako izaera jaso duen edo, bere izaeragatik, halakotzat hartu behar izan duen informazio guztia. Betebehar hori bost urtez mantenduko da, informazio hori jakiten denetik zenbatuaz.

Orobat, erakunde esleipendunaren betebeharra da isilpean gordetzea kontratuaren xedearekin lotuta dauden edo honen ondorioz ezagutzen dituen datu zein aurrekariak, publikoak edo nabarmenak izan ezean.

28.2 Datu pertsonalen tratamendua

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko, azaroaren 8ko, 9/2017 Legearen 25. xedapen gehigarriaren arabera (lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora), pertsona fisikoen datu pertsonalen tratamendua dakarten kontratuek osorik errespetatu beharko dute Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubideak Bermatzeari buruzkoa.

ESKU6b04c9e4-2d65-4d89-b035-592fdbed7c4e

Usurbilgo Udala

Esp. zk. 2024LIRZ0005

Esleipenak berekin badakar erakunde esleipendunak Usurbilgo Udalaren ardurapeko datu pertsonalak eskuratzea, hura Tratamenduaren Eragilearen izaera izango du. Kasu horretan, datu horietarako sarbidea ez da datuen komunikaziotzat hartuko, DBEOren 28. artikuluan aurreikusitakoa bete ezkero. Edonola ere, idatziz jaso beharko dira haren aurreikuspenak.

Kontratu prestazioa amaitzen denean, datu pertsonalak suntsitu edo itzuli beharko dira, bai erakunde kontratatzaile arduradunari edo hark izendatutako beste Tratamendu Eragileari bati. Tratamenduaren Eragileak datuak behar bezala blokeatuta gordeko ditu, tratamenduaren ardura duen erakundearekin duen harremanetik erantzukizunak erator badaitezke.

Halaber, hirugarren batek datu pertsonalak kontratistaren, Tratamendu Eragilearen, kontura tratatzen baditu, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Tratamendu hori erakunde kontratatzaileak eta kontratistak sinatutako kontratuan zehaztuta egotea.

b) Datu pertsonalen tratamendua tratamenduaren arduradunaren jarraibideekin bat etortzea.

c) Tratamenduaz Eragilea den kontratistak eta hirugarrenak DBEOren 28. artikuluan aurreikusitako baldintzekin bat datorren kontratua formalizatzea. Kasu horietan, hirugarrena ere Tratamendu Eragiletzat hartuko da. Gainera, kontratistak, azpikontratistak eta exekuzioari atxikitako langileek honako hau bete beharko dute:

1. Tratamenduaren arduradunaren jarraibideen arabera soilik tratatuko ditu datuak.

2. Datu pertsonalak kontratuaren xedea gauzatzeko baino ez ditu erabiliko.

3. Ez die inolako datu pertsonalik eman edo erraztuko hirugarrenei. Horretarako, kontratistak datu horiek edo haiekin sortutako fitxategiak ez transferitzeko, lagatzeko edo jakinarazteko konpromisoa hartzen du, ez ahoz, ez idatziz, ez bitarteko elektronikoen bidez, ez paperean, ez sarbide informatikoaren bidez, ezta ikusteko ere.

4. Zerbitzua edo jarduera hasi baino lehen, datu pertsonaletara sarbidea duten langile guztien zerrenda bat eman beharko dio kontratuaren arduradunari, eginkizunak eta lana non egingo duten adierazita. Kontratua gauzatzen den bitartean beste pertsona batzuk jardueran parte hartu behar ezkero, beste zerrenda bat erraztuko du, hori gertatzen denetik gehienez ere astebeteko epean. Bai kontratistak, bai zerrenda horietan agertzen diren langile guztiek, formalki eta idatziz, tratatutako datuei buruzko sekretu profesionala gordetzeko konpromisoa hartu beharko dute.

5. Kontratuaren arduradunak, kontrolak egin ahal izango ditu kontratuaren exekuzioan, segurtasun-neurriak betetzen direla egiaztatzeko, eta, hala badagokio, neurri zuzentzaile egokiak hartu ahal izango ditu ere.

ESKU6b04c9e4-2d65-4d89-b035-592fdbed7c4e

28.3 Tratamenduaren Eragilearen betebeharrak

Prestazioaren izaeratik ondorioztatzen bada esleipendunak Usurbilgo Udalaren kontura datuak tratatzeko aukera izango duela, tratamendu eragilearen kontratua gauzatu beharko da nahitaez. Kontratu horretan, adostasuna emango zaie esleipendunak, tratamenduaren arduradun den aldetik, dituen betebeharrei, eta betebehar horien funtsezko izaera deklaratuko da kontratu honen ondorioetarako. Era berean, esleipendunak tratamendu eragilearen kontratuan bertan zehazten den moduan tratatu beharko ditu Usurbilgo Udalaren datu pertsonalak.

Usurbilgo Udalak, kontratua gauzatzen den bitartean, egokitzat jotzen dituen egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu betebehar horiek betetzen direla egiaztatzeko, hauen ez betetzeak suntsiarazteko arrazoi izaera izanik. Horretarako, Usurbilgo Udalak edozein unetan eskatu ahal izango ditu datuen tratamenduetan arriskuari egokitutako segurtasun-maila bermatzeko ezarritako neurri tekniko eta antolakuntzakoen arrisku analisia. Orobat, neurri horiek dagokion zigilu, ziurtagiri edo estandarraren bidez egiaztatu ahal izango dira.

ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

29. ARAUBIDE JURIDIKOA

1.- Kontratu hau zerbitzuak emateko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legea onesten duen, azaroak 9ko 9/2017 Legearen 17. artikuluak aurreikusitakoaren arabera. Administrazio kontratua izango da, eta herri-administrazioek kontratazioetarako erabiltzen dituzten printzipio komunen arabera arautuko da, eta beti ere kontratazio publikoaren arloan Europako erkidegoen zuzenbideak zehaztutako printzipio komunen arabera.

Horrez gain, erregulazio harmonizatuko kontratua izango da.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, honako hauek izango dira kontratua arautuko dutenak:

a.- Baldintza ekonomiko-administratiboen plegu hau.

b.- Lizitazioa eta kontratua egiterakoan eta bi horiek garatzen diren bitartean indarrean dauden Toki Araubideko nahiz Herri Administrazioetako Kontratuetako legezko eta arauzko xedapenetan jasotako kontratazio-arauak.

Zehazki, honako arau hauek aplikatuko dira: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki#araubidearen oinarriak arautzen dituena; 781/1986 Errege Lege Dekretua, apirilan 18koa, toki-araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testua bategina onesten duena; azaroaren 9ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legea onesten duena; eta honako hau izango da arauzko xedapena: 773/2015, Errege Dekretua abuztuaren 28koa, 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duena, eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, herri-administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendua onesten duena, aurrekoei kontra egiten ez dien neurrian.

ESKU6b04c9e4-2d65-4d89-b035-592fdbed7c4e

c.- Administrazio-zuzenbideko gainerako arauak.

2.- Zuzenbide pribatuko arauak zuzenbide osagarri gisa erabiliko dira, kontratua interpretatu, bete edo iraungitzerako garaian eta kontratua indarrean dagoen bitartean zalantzak sortu eta zalantza horiek aurreko paragrafoan aipatutako xedapenen bidez argitu ezin direnean. Edonola ere, zuzenbide pribatuko arauak aplikatzeko, kontuan hartu beharko dira administrazioaren eskumenak.

3.-Erabat teknikoak diren gaietan izan ezik, plegu honetako xedapen guztiak espedienteari lotutako gainerako aukerako baldintzen gainetik egongo dira.

30. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak konpondu daitezke arbitrajearen bitartez, indarrean dagoen legerian xedatutakoarekin bat etorriz.

Horrek ez du kentzen, hala badagokio, kontratazioaren alorreko errekurtso berezia jarri ahal izatea Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 44. artikulutik 60. artikulura artekoek araututakoaren arabera. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean araututako edozein errekurtso ere aurkeztu ahal izango da.

Helegite Berezia

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu; administrazioaren bideari amaiera emango diote organoaren erabakiek, eta zuzenean aurkaratu ahal izango dira administrazioarekiko auzien jurisdikzioan. Horrek ez du kentzen, kontratazioaren alorreko errekurtso berezia jarri ahal izatea Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 44. artikulutik 60. artikulura artekoek araututakoaren arabera. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean araututako edozein errekurtso ere aurkeztu ahal izango da.

ESKU6b04c9e4-2d65-4d89-b035-592fdbed7c4e

Usurbilgo Udala

Esp. zk. 2024LIRZ0005

ESKU6b04c9e4-2d65-4d89-b035-592fdbed7c4e

Usurbilgo Udala

I. ERANSKINA

Subrogatzeko langileak eta aplikatzen zaizkien lan baldintzak

	Lanpostua	Antzinatasun data	Kontratu kodea	Lanaldia	Lanaldi banaketa	Kontratu amaiera	Urteko soldata	Oharrak
1	Begiralea / soroslea	2008/08/25	200	%90,18	Begirale % 34,25 / Soroslea %53,53 / Sorosle % 2,40 (ekainaren 27 arte)		27.448,73 €	
2	Begiralea / soroslea	2005/09/05	200	%90,88	Begirale % 28,47 / Soroslea %62,41		29.065,96 €	
3	Begiralea / soroslea	2005/09/05	200	%84,72	Begirale % 46,25 / Soroslea % 34,32 / Begiralea % 4,15 (ekainaren 27 arte)		25.467,88 €	
4	Begiralea / soroslea	2016/09/12	289	%86,16	Begiralea % 44,24 / Soroslea % 41,92		22.806,05 €	
5	Begiralea	2014/09/15	300	%11,29	Begiralea	2024/06/28	2.515,96 €	Soldata 10 hilabeteri dagokio
6	Begiralea	2013/10/07	300	%9,10	Begiralea	2024/06/25	3.006,07 €	Soldata 9 hilabeteri dagokio / 21,85€ neto orduko adostuta
7	Begiralea / soroslea	2016/10/01	300	%86,55	Begiralea % 48,69 / Soroslea % 37,86	2024/06/28	17.117,32 €	Soldata 9 hilabeteri dagokio
8	Begiralea	2016/06/11	200	%12,05	Begiralea		2.140,56 €	18€ orduko soldata gordina
9	Begiralea	2022/12/01	300	%2,30	Begiralea		436,75 €	Soldata 9 hilabeteri dagokio
10	Begiralea	2023/12/06	300	%6,13	Begiralea	2024/06/26	528,68 €	Soldata 5 hilabeteri dagokio
11	Begiralea / soroslea	2022/03/25	300	%54,30	Begiralea % 8,97 / Soroslea % 45,33		8.834,52 €	Soldata 10 hilabeteri dagokio
12	Begiralea	2024/01/16	300	%10,23	Begiralea	2024/06/27	1.095,54 €	Soldata 5 hilabeteri dagokio
13	Koordinatzailea	2019/06/24	289	%15,00	Koordinatzailea		2.969,28 €	

ESKU6b04c9e4-2d65-4d89-b035-592fdbed7c4e

Usurbilgo Udala

II. ERANSKINA

MODU AUTOMATIKOAN ZENBATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO PROPOSAMENA ("C" ARTXIBO ELEKTRONIKOA)

Plegu hauen objektu den USURBILGO OIARDO KIROLDEGIAN KIROL JARDUERA FISIKOA ETA UR SOROSPEN ZERBITZUA emateko hurrengo eskaintza egiten duela:

1-ESKAINTZA EKONOMIKOA:

-Begiraleak:_____euro/orduko, BEZ-a gabe (%__ BEZ-a ____, guztira BEZ barne _____ euro/orduko)
-Sorosleak: _____euro/orduko, BEZ-a gabe (%__ BEZ-a ____, guztira BEZ barne _____ euro/orduko)
-Koordinatzailea: ___euro/orduko, BEZ-a gabe (%__ BEZ-a ____, guztira BEZ barne _____ euro/orduko)

Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa , bai eta esleipendunaren industri onura ere.

2-KOORDINAZIO ORDU PRESENTZIALAK

Eskainitako koordinazio ordu presentzial kopurua	BAI	EZ
0-25 ordu bitarte		
26-100 ordu bitarte		
101-200 ordu bitarte		
201 ordu baino gehiago		

3-BERDINTASUNAREN ALORREKO ENPRESA BEREIZGARRIAK IZATEA

	BAI	EZ
Emakunde-Emakumenaren Euskal Erakundearen "Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetza Erakundea" bereizgarria		
Presidentetzaren, Gorteekiko Harremanen eta Berdintasunaren Ministerioaren "Berdintasuna Enpresan" bereizgarria		
Antzekoa edo baliokidea den beste edozein ziurtagiri		

EKS | CSV: **ESKU6b04c9e4-2d65-4d89-b035-592fdbed7c4e**
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07310
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07310